

## 2023KO URTARRILAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

**MODUA:** Presentzialki

**TOKIA:** Batzar aretoa

**EGUNA:** Hogeita sei

**HILABETEA:** Urtarrila.

**URTEA:** Bi mila eta hogeita hiru.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko seiak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUAK:** Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

**IDAZKARIA:** ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTA.** Aurreko Aktaren onespena. 2022-12-23.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da 2022-12-23ko akta.

**2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

**a.- OBRAK KONTRATATZEA.** 2022PROB0008

Ondorengo ezagutzera eman da:

Gobernu Batzordeak 2022-12-23an egindako bileran erabaki zuen “*Beasaingo udal hilerriko nitxoak eraberritzeko*” lizitazio espedientea onartzea eta kontrataziorako deialdi publikoa egitea.

Deialdia, Euskadiko kontrataziorako plataforman 2022-12-27an argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko epea 2023-01-16an amaitu zen baina epe horretan ez da inolako lizitatzailerik aurkeztu.

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeari proposatzen zaio, **lizitazioa hutsik uzteko aitorpena egitea lizitatzailerik faltagatik.**

Onartu egin da aho batez.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak galdetu du ea obra hori udal brigadak ezin duen egin.

Adur Ugartemendia Leunda jaunak erantzun du esanez, nitxoaren hornidura lizitatu egin beharke lizitatekeela eta obra zibila brigadak egitea suposatuko lukeela herrian sortzen diren beste lanen egikaritzea atzeratzea.

Aldi berean azaldu du, obra horien esleipena denboran luzatuko balitz, hilerriko lehenengo lerroa (40 nitxo), hustutzeko moduan dagoela, legeak horretarako eskatzen duen 10 urte pasatu direlako.

b.- OBRA ZIURTAGIRIAK: BEASAINGO DOLAREA PARKEAN HAUR PARKE INKLUSIBO BAT GAUZATZEKO ETA TRENBIDE KALEKO HAUR PARKEA BERRITZEA. 1. ZIURTAGIRIA. 2022PROB0006

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria (lehenengoa) onartu da: Beasaingo Dolarea parkean haur parke inklusibo bat gauzatzeko eta Trenbide kaleko haur parkea berritzea, obrei dagokiena: 63.640,19 €koa (BEZ barne).

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderetan atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hogeit gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.